



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Administrazio Bereziko Eskalako, azpieskala Teknikoko, Erdi-Teknikari klaseko, A2 Taldeko, herri lanetako eta zerbitzuetako Arkitekto Teknikari, derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizuneko plaza bat (1) txanda irekian oposizio bidez betetzeko hautaketa- prozesuan atzera egitea.

Alkateak, uztailaren 30eko 3034/2024 Alkatetza Dekretuaren bidez, honako hau xedatu du:

Lehenengoa: Administrazio Bereziko eskalako, azpieskala Teknikoko, Erdi-Teknikari klaseko, A2 taldeko, herri lanetako eta zerbitzuetako Arkitekto Teknikari, derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizuneko plaza bat (1) txanda irekian oposizio bidez betetzeko hautaketa-prozesuan atzera egitea. Lanpostu horien deialdia eta oinarriak aurtengo uztailaren 4ko 129. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Bigarrena: Beste hautaketa-prozedura bat hasteko agintzea, udalaren interes orokorra hobeto lortuko dela bermatzeko. Onartu aurretik, sindikatu-ordezkariekin negoziatu beharko dira lanpostu horretarako deialdia eta berariazko oinarriak.

Hirugarrena: Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

Laugarrena: Dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, berau argitaratzen den dataren biharamunetik bi hilabeteko epean. Bestela, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoan. Hala xedatzen du Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin bat.

Basaurin, 2024ko uztailaren 30ean. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren